



EUSKARA ZERBITZUA

Arangurengo Ibarra

17 Zk. Iraila - Abendua 2014

Informazio Buletina

EUSKARA ERROTULUETAN ERABILTZEKO DIRULAGUNTZAK

Aranguren Ibarreko Udalak diru-laguntzak emanen dizkie udalerriko establezimenduei beren fatxada, erakusleihu, eguzki-oihal eta ibilgailuetan jarritako errotulazioan euskara erabiltzen badute. Ekimen honi buruz Haritz Goikoetxearekin, gaur egun Aranguren Ibarreko komertzioetan euskararen erabilera kudeatzen duen EMUN Kooperatibako teknikariarekin hitz egin nahi genuen.

Nola ikusten duzu Aranguren Ibarreko Udalaren ekimena?

Oso positiboa iruditzen zait. Errotuluak oso elementu garrantzitsuak dira merkataritza sektorean, gure identifikazio-ikur izateaz gain, kontsumitzaileak erakartzeko erabiltzen baititugu. Errotulazioan euskara erabiltzeak euskararekiko gure jarrera zein den ere erakusten du eta kontsumitzaile euskaldunek asko eskertzen du hori. Hortaz, oso garrantzitsua iruditzen zaigu errotulazioan euskararen erabilera sustatzea eta horretarako laguntzak ematea.

Zure ustez zer nolako eragina izango du ibarreko komertzioetan?

Momentu honetan Iruñerriko hamar udalerrri eta 240 saltokitik gora daude "Euskara merkataritza" planean. Saltoki horiei doako askotariko laguntzak eskaintzen zaizkie udaletako euskara zerbitzueta-tik eta, horiei esker, euskararen presentzia nabarmen hazi da, gero eta gehiago baitira erakusleihoe-tako kartelak, jatetxeetako menuak eta antzekoak euskaraz ere jartzen dituztenak. Urrats garrantzitsua da oraingo hau, diru-inbertsio baten beharra izan duten errotuluak euskaraz jar-tzeagatik diru-laguntzak ematea, hain zuzen ere, eta gainerako udalerrietan bezala, emaitza positi-boak izango dituela uste dugu.

Zeintzuk dira establezimenduek bete behar dituzten baldintzak?

Izen generikoa erabili behar da, "belar-denda", esaterako; ez izen berezia soilik "Tximeleta", adibidez. Testua zuzen idatzita egonen da, akatsik gabe. Euskara Zerbitzuak doako itzulpen, zuzenketa eta aholkularitza zerbitzua eskaintzen du. Euskarazko testua ez da izanen gaztelaniazkoa baino txikiagoa edo ikuspen murriztagokoa.

Zer egin behar dute merkatariek dirulaguntza eskatzeko?

Errotulua jarri baino lehen, zalantzak argitzeko, **Euskara Zerbitzuarekin harremanetan jartzea** gomendatzen diegu. Behin errotulua jarrita, Udaleko Erregistrora joan beharko dute eskaera betetzeko.

Zein da eskariak aurkezteko epea?

Aurtengo deialdian, eskaerak aurkezteko epea abenduaren 15ean bukatzen da.



HAURRAK

LARUNBLAI / ISEKA

D ereduko haur eta gazteentzat euskarazko ai-sialdiko talde egonkorak.

Larunblai

D ereduko Lehen Hezkun-tzako 2., 3., 4., eta 5. maila-ko haurrentzako.

Urriaren 3tik aurrerako **os-tiraletan**, 17:30etik

19:30era, kontsultategiko beheko aldean.

Iseka

D ereduko Lehen Hezkun-tzako 6. mailatik, DBHko 2. maila bitarteko gaz-tetxoentzat **Urriaren 4tik** aurrerako **larunbate-tan**, 17:00etatik 19:00etara, kontsultategiko beheko aldean.

Izen emateak: irailaren 15tik 19ra, Euskara Zerbitzuan, 9:00etatik 14:00etara. Lehenasuna izango dute Ibarreko auzokideek.

Kuota: urritik ekainera, 60 €.

Jarduera hasten den egun berean, guraso eta tutoreentzako bilera egingo da.

Informazio gehiago Euskara Zerbitzuan.



EUSKAL DANTZAK EUSKARAZ

D ereduko 2.008 eta 2.002 urte bitartean jaiotako haurrentzako (bi talde).

Astelehenetan, urriaren 6tik aurrera, Eguzki plaza-ko Ludotekan.

TXIKIEN TALDEA: 2.008 eta 2.005 bitartean jaiotako: **17:00 – 18:30** (gutxienez 8 eta gehienez 24)

HANDIEN TALDEA: 2.004 eta 2.002 bitartean jaiotako: **18:30 – 20:00** (gehienez 12)

Izen emateak: irailaren 22tik 26ra, Euskara Zerbitzuan, 9:00etatik 14:00etara.

Kuota: Erroldatuak 10 € eta erroldatu gabek 30 €.

Mugagutako plaza-ak:

Parte hartzaileen zerranda izen emateko hurrenke-

raren arabera egingo da taldeak osatu arte.

Lehenasuna izango dute iaz jardueran parte hartu zutenek eta Ibarrean erroldaturik daudenek.

Informazio gehiago Euskara Zerbitzuan.



LUDOTEKA

4 eta 12 urte bitarteko haurrentzako.

Ostegunetan (euskaraz) eta **ostiraletan** (ele bitan), **17:00etatik 19:00etara**. Idoi plazako lokaletan.

Urriaren 3tik aurrera.

Urriaren 3an irekiera festa egingo da.

Informazio gehiago Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan: 948 15 13 82.

LUDOTXIKIA

0 eta 3 urte bitarteko haurrak, beti heldu batez lagun-durik.

17:00etatik

19:00etara,

Idoi plazako lokaletan.

Hasiera urria-ren 3an.

Urriaren 9an

guraso eta

haurrentzako

tailerra emango da elkarrekin **euskaraz jolasteko** eta

abesteko tresnak eskuratu ditzaten.

Informazio gehiago, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan: 948 15 13 82.



ESKOLA LAGUNTZA EUSKARAZ

Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailako haur-errentzako eta DBHko 1. mailako gazteentzako. **Astelehen, astearte eta ostegunetan**, 2.014ko urritik 2.015eko maiatzera arte. **Urriaren 6tik** aurrera. Aranetxean. San Pedro I.P.-ko ikasle eta errolatuentzako. Doako jarduera.

IRTEERA: IRULEGI MENDIRA

“Oinez gailurra” egitasmoaren barruan **Irulegi mendiko gailurra babestu nahi dugu**. Oinez gailurra egitasmoari buruzko informazio gehiago eskuratzeko <http://www.oinezgailurra.com/>
Eguna: **Urriak 5**, igandea
Ordua: **10:00etan**
Lekua: **San Pedro Ikastetxean**
Irulegi Euskara Taldeak antolatutako jarduera.



IPUIN-KONTALARIA

LUR USABIAGA: “Hugo eta piratak”
Eguna: **urriak 14**, asteartea.
Ordua: **17:00etan**.
Lekua: **San Pedro I.P.**-ko liburutegia.
4 urtetik gorako haurrentzako jarduera.
Doako sarrera. Garaiz iristea eskertuko da.

IPUIN-KONTALARIA

EÑAUT GORBEA: “Aldrebeskeriak”
Eguna: **azaroak 11**, asteartea.
Ordua: **17:00etan**.
Lekua: **San Pedro I.P.**-ko liburutegia.
4 urtetik gorako haurrentzako jarduera.
Doako sarrera. Garaiz iristea eskertuko da.

HAUR ETA FAMILIENTZAKO ANTZERKIA EUSKARAZ

Antzezlan: “**Txanogorritxu Rock**”.
Taldea: Tdiferencia.
Eguna: **azaroak 16**, igandea.
Ordua: **18:30etan**.
Lekua: **Kultur Etxeko Auditorioa**.
Sarrera: 3 €.



HAUR ETA FAMILIENTZAKO ANTZERKIA EUSKARAZ

Antzezlan: “**Mollie Malonen ipuin sinestezina**”.
Taldea: Txalo Produksioak
Eguna: **Abenduak 21**, igandea.
Ordua: **18:30etan**.
Lekua: **Kultur Etxeko Auditorioa**.
Sarrera: 3 €.

OLENTZERORAKO KARTELEN LEHIAKETA

Ibarrean errolatutako edo San Pedro I.P.-ko 1. eta 6. maila tarteko haurrentzako, 2 kate-goriatan, 1. mailatik 3. mailara eta 4. mailatik 6. mailara.
Aurkezteko epea: abenduak 12, ostirala, 13:00etan.
Aurkezteko lekuak: Udaletxeko bulegoak, San Pedro Ikastetxe Publikoa eta Kultur Etxea.
Informazio gehiago Euskara Zerbitzuan.



SANTO TOMAS EGUNA

Eguna: abenduak 19, ostirala
Ordua: 16:30ean
Lekua: jokoak kiroldegiko frontoian, ondoren txistorra jana errelekuan
Irulegi Euskara Taldeak antolatutako jarduera.

GAZTE ETA HELDUAK

EUSKARA IKASTEKO IKASTAROA

Gazte eta helduentzako euskara ikastaroak.
Izen emateko epea: irailaren 26ra arte.
Informazio gehiago Euskara Zerbitzuan edo <http://www.modelo-e.com/eu/>



EUSKARA IKASTEKO BEKAK

Ibarrean errolatutako pertsonentzako.
Eskaearak **aurkezteko epea:** urriak 3, 14:00etan.
Informazio gehiago Euskara Zerbitzuan.

MINTZAKIDE

Euskaraz hitz egiteko taldeak. Euskaraz hitz egiteko jarioasuna lortu nahi duten pertsonentzako edo beste batzuei horretan lagundu nahi dietenentzako. **Izen emateko epea:** urriaren 13ra arte.
Aurkezpena: urriaren 9an, osteguna.
Informazio gehiago Euskara Zerbitzuan, <http://www.irunerrikomintzakide.org-n>, edo egitasmoa koordinatzaileari 948 33 08 68/ 664 496 509 telefonoetan eta mintzakide@topagunea.com e-postaren bidez galdetuz.



AUTOBUSA: NAFARROA OINEZ 2014

Zangozako Ikastola.
Eguna: urriak 19, igandea.
Ordutegia: Irteera 9:00 Itzulera: 19:00.
Prezioa: 5 €. Errolatuen-tzat, 10 € errolatugabeen-tzat.
Izen emateko epea: urriaren 12ra arte. Aranetxeara deituz.
Plaza mugatuak. Aranguren Ibarrean errolatutakoek lehentasuna izango dute.



DANTZA ETA BIDEOARTE IKUSKIZUNA

Lana: “**Emak bakia dantzan**”
Zuzendaria: **Izaskun Iturri**.
Antzezleak: Maite Churruga, Izaskun Iturri
Eguna: **azaroak 2**, igandea.
Ordua: **20:00etan**.
Lekua: Kultur Etxeko Auditorioa.
Prezioa: 3 €.

KANTU TAILERRA EUSKARAZ

Josetxo Artajo
Egunak: **Igandeetan**, urritik maiatzera.
Ordua: **19:00 – 20:30**
Lekua: Ibaialdeko lokalak
Izen emateko epea: irailaren 22tik 26ra, Euskara Zerbitzuan, 9:00etatik 14:00etara.
Prezioa: 5 €. (Irulegi Euskara Taldeko bazkideentzako doakoa).
Antolatzen du: Irulegi Euskara Taldeak

JOALDUN IKASTAROA EUSKARAZ

Eguna: **Azaroak 8 eta 15**, larunbatak.
Ordua: **11:00 – 13:00**
Lekua: Kontsultategiko beheko aldea
Izen emateko epea: azaroaren 3tik 6ra, Euskara Zerbitzuan, 9:00etatik 14:00etara.
Prezioa: 5 €. (Irulegi Euskara Taldeko bazkideentzako doakoa).
Antolatzen du: Irulegi Euskara Taldeak



EUSKALDUNEN FITXATEGIA

2009an Aranguren Ibarreko Udalak Ibarreko Euskaldunen Fitxategi bat sortzea erabaki zuen. Fitxategi horren helburua hala nahi zuten biztanleei Ibarrean antolatzen diren **euskarazko edo euskarari buruzko jarduerak** modu eraginkorragoan jakinarazi ahal izatea da. Horrelako **jardueren berri jaso nahi baduzu edo fitxategian egoteko fitxa bete zenuenetik zure daturen bat** (e-posta, telefonoa...) **aldatu baduzu, jar zaitetz udaleko Euskara Zerbitzuekin harremanetan.**

ARGITALPENAK

Nafarroako Unibertsitate Publikoak eta Arangurengo Udalak argitaratutako «Estudio Sociolingüístico del Valle de Aranguren» argitalpenaren ale bat nahi baduzu, jar zaitetz Euskara Zerbitzuekin harremanetan. Errolatuentzako doako aleak daude.



Udalaren helburua Ibarreko taldeekin **elkar-lanean** aritzea da. Ibarrean euskaraz edo euskarari buruzko jardueraren bat antolatzeke proposamenik baldin baduzu, jarri zaitetz gurekin harremanetan.

EUSKARA ZERBITZUA
Mutiloa pl. z/g. Mutiloa
Asteleheneetik ostiralera
9:00etatik 14:00etara
948 15 01 93
euskera@aranguren.es
www.aranguren.es